

Interes orokorreko xedapenak, buletinetan argitaratuta (E.A.E., E.H.A.A., A.L.H.A.O., B.A.O., G.A.O. y E.B.A.O.), **2019ko martxoaren 9tik 15erako astea.**

## **I.- HITZARMEN KOLEKTIBO SEKTORIALAK:**

### **Estatuko Aldizkari Ofiziala 2019/03/13**

- Ebazpena, 2019ko otsailaren 18koa, Lanaren Zuzendaritza Nagusiarena, zeinaren bitartez erregistratzen eta argitaratzen den Autoeskolen XXII. hitzarmen kolektibo nazionaleko 2017., 2018. eta 2019. urteetarako ordainsarien taulei buruzko erabakia. **2019-3611 xedapena - 3 or.**

### **Bizkaiaiko Aldizkari Ofiziala 2019/03/13**

- Erabakia Lan eta Justizia Saileko Lan eta Gizarte Segurantzako Bizkaiko lurralde ordezkariarena. Honen bidez ebazten da Bizkaiko errepide-garraioko enpresentzako eta garraioko laguntza-jarduera sektoreko Hitzarmen Kolektiboaren 2019ko nazioarteko dieten berrikuspena erregistratu, gordailu egin eta argitaratzea (hitzarmen kodea 48002325011981). **3 or.**

### **Estatuko Aldizkari Ofiziala 2019/03/14**

- Ebazpena, 2019ko otsailaren 20koa, Lanaren Zuzendaritza Nagusiarena, zeinaren bitartez erregistratzen eta argitaratzen den Txatarraren alorreko VI. Hitzarmen kolektibo orokorra (2015-2017). **2019-3674 xedapena - 89 or.**

## **II.- XEDAPEN OROKORRAK:**

### **E.A.O. (Estatuko Aldizkari Ofiziala)**

**2019/03/11**

- **EKONOMIA ETA ENPRESA MINISTERIOA. - Kapital sozietateak. Kontabilitate plan orokorra.** - Ebazpena, 2019ko martxoaren 5koa, Kontabilitate eta Kontuen Ikuskaritza Institutuarena, zeinaren bitartez garatzen diren kapital sozietateen merkataritza erregulazioarekin zerikusia duten finantza tresnen eta kontularitzaren beste alderdi batzuk aurkezteko irizpideak. **2019-3422 xedapena - 43 or.**

- **DATUAK BABESTEKO ESPAINIAKO AGENTZIA. - Izaera pertsonaleko datuak. Hauteskundeak.** – 1/2019 Zirkularra, martxoaren 7koa, Datuak Babesteko Espainiako Agentziarena, iritzi politikoarekin loturiko datu pertsonalen tratamenduari eta alderdi politikoek, federazioek, koalizioek eta hautesle-taldeek hauteskundeetako propaganda bide elektronikoetatik edo mezularitza-sistemen bidez bidaltzeari buruzkoa, Hauteskunde Araubide Orokorren ekainaren 19ko 5/1985 Lege Organikoaren 58 bis artikulua babespean. 2019-3423 xedapena - 7 or.

## 2019/03/12

- **ESTATUKO BURUZAGITZA. - Premiazko neurriak.** - 8/2019 Errege Lege-dekretua, martxoaren 8koa, gizarte babeserako premiazko neurriari eta lanaldian prekaritateari aurre egiteari buruzkoa. 2019-3481 xedapena - 26 or.

## 2019/03/13

- **OGASUN MINISTERIOA. - Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zerga eta Ondarearen gaineko Zerga.** HAC/277/2019 Agindua, martxoaren 4koa, zeinaren bitartez onesten diren 2018ko ekitaldiko Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergaren eta Ondarearen gaineko Zergaren aitortzen diren ereduak; zehazten diren horiek aurkezteko lekua, modua eta epeak; ezartzen diren Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergaren aitortzen diren zirriborroa eskuratzeko, aldatzeko, baiezteko eta aurkezteko prozedurak; zehazten diren zein diren baldintza orokorrak eta horiek bide telematiko edo telefonikoz aurkezteko prozedura, eta aldatzen den HAP/2194/2013 Agindua, azaroaren 22koa, zeinaren bitartez arautzen diren zerga izaera duten zenbait autolikidazio, informazio-aitortzen, zentsu-aitortzen, komunikazio eta itzultze-eskaerak aurkezteko baldintza orokorrak. 2019-3563 xedapena- 69 or.
- **OSASUN, KONTSUMO ETA GIZARTE ONGIZATE MINISTERIOA. - Farmazia ikuskaritza. Atzerriko osasun zerbitzua.** SCB/278/2019 Agindua, martxoaren 7koa, zeinaren bitartez aldatzen den SPI/2136/2011 Agindua, uztailaren 19koa, zeinak ezartzen dituen farmazia ikuskaritzak mugan egin beharreko osasun kontrolen modalitateak eta arautzen duen Atzerriko osasun zerbitzuaren Farmazia ikuskaritzaren sistema informatikoa. 2019-3564 – xedapena 48 or.

## 2019/03/14

- **BARNE MINISTERIOA. - Hauteskunde-mahaiak. Dietak.** - INT/282/2019 Agindua, martxoaren 7koa, hauteskunde-mahaietako kideen dieta arautzen duena. **2019-3641 xedapena - 2 or.**
- **LANAREN, MIGRAZIOEN ETA GIZARTE SEGURANTZAREN MINISTERIOA. - Enplegurako lanbide heziketa.** - TMS/283/2019 Agindua, martxoaren 12koa, zeinaren bitartez arautzen den Heziketa espezialitateen katalogoa, enplegurako lanbide heziketako sistemaren esparruan, lan arloan. **2019-3642 xedapena - 21 or.**

## 2019/03/15

- **LANAREN, MIGRAZIOEN ETA GIZARTE SEGURANTZAREN MINISTERIOA. - Enplegu politika.** - Ebazpena, 2019ko martxoaren 12koa, Enpleguaren Estatu Idazkaritzarena, zeinaren bidez argitaratzen den 2019ko martxoaren 8ko Ministroen Kontseiluaren Erabakia, zeinak onesten duen 2019rako Enplegu Politikarako Urteko Plana, urriaren 23ko 3/2015 Legegintzako Errege Dekretuak onetsitako Enpleguaren Legearen testu bateginaren 11.2 artikuluan ezarritakoaren arabera. **2019-3699 xedapena - 151 or.**
- **ZIENTZIA, BERRIKUNTZA ETA UNIBERTSITATEEN MINISTERIOA. - Prestakuntzako ikerlariak. Estatutua.** - 103/2019 Errege Dekretua, martxoaren 1ekoa, zeinaren bitartez onesten den Doktorego aurreko prestakuntzako ikerlarien estatutua. **2019-3700 xedapena - 10 or.**
- **EUSKAL AUTONOMIA ERKIDEGOA. - Errepideak.** - 5/2018 Legea, azaroaren 29koa, Euskal Autonomia Erkidegoko Errepideen Plan Orokorra arautzen duen Legea hirugarren aldiz aldatzen duena. **2019-3701 xedapena - 7 or.**
- **AURREKONTU-NEURRIAK.**
  - 1/2019 Legea, otsailaren 14koa, diru-sarrerak bermatzeko errentarekin lotuta, 2019ko ekitaldirako premiazko aurrekontu-neurriak hartzeari buruzkoa. **2019-3702 xedapena- 2**
  - 2/2019 Legea, otsailaren 14koa, luzapenarekin lotutako ordainsariei eta beste alderdi batzuei dagokienez, 2019ko ekitaldirako premiazko aurrekontu-neurriak hartzeari buruzkoa. **2019-3703 xedapena - 4 or.**

- 3/2019 Legea, otsailaren 14koa, hezkuntzaren alorrean 2019ko ekitaldirako premiazko aurrekontu-neurriak hartzeari buruzkoa. 2019-3704 xedapena- 18or.
- **ENERGIA.-** 4/2019 Legea, otsailaren 21koa, Euskal Autonomia Erkidegoko Jasangarritasun Energetikoari buruzkoa. 2019-3705 xedapena - 33 or.

## **E.H.A.A. (Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkaria)**

**2019/03/11**

- **EKONOMIAREN GARAPEN ETA AZPIEGITURA SAILA.** - 25/2019 DEKRETUA, otsailaren 26koa, Euskal Autonomia Erkidegoko eraikinen eraginkortasun energetikoaren ziurtapenari eta ziurtapenaren kontrol-prozedurari eta erregistroari buruzkoa. 1272 xedapena - 30 or.

## **A.L.H.A.O. (Arabako Lurralde Historikoaren Aldizkari Ofiziala)**

**2019/03/11**

- **FORU AGINDUAK (OGASUN, FINANTZA ETA AURREKONTU SAILA)**
  - 92/2019 Foru Agindua, martxoaren 1koa, Ogasun, Finantza eta Aurrekontu Saileko foru diputatuarena. Ogasun, Finantza eta Aurrekontu Saileko diputatuaren irailaren 27ko 529/2017 Foru Agindua, elkarrekiko laguntzaren esparruko finantza kontuen 2018rako informazio aitortpenaren 289 eredu onesten duena, aldatzea. 701 xedapena - 5 or.
  - 89/2019 Foru Agindua, martxoaren 1koa, Ogasun, Finantza eta Aurrekontu Saileko foru diputatuarena. Aldatzea Ogasun, Finantza eta Aurrekontu Saileko irailaren 27ko diputatuaren 529/2017 Foru Agindua, elkarrekiko laguntzaren esparruko finantza kontuen 2019rako informazio aitortpenaren 289 eredu onesten duena. 702 xedapena - 4 or.
  - 88/2019 Foru Agindua, martxoaren 1koa, Ogasun, Finantza eta Aurrekontu Saileko foru diputatuarena. 196, 198 eta 291 ereduak onesten dituzten zenbait foru aginduren aldaketa . 703 xedapena - 3 or.
- **FORU AGINDUAK (NEKAZARITZA SAILA).** - 107/2019 Foru Agindua, martxoaren 7koa, arautzen duena ibaietako arrantzaren aprobetxamendua Arabako Lurralde Historikoan 2019-2020 denboraldian. 677 xedapena - 21 or.

**B.A.O. (Bizkaiko Aldizkari Ofiziala)**

**2019/03/11**

• **OGASUN ETA FINANTZA SAILA**

- Bizkaiko Foru Aldundiaren 12/2019 FORU DEKRETUA, otsailaren 26koa, zeinaren bidez, Bizkaiko Lurralde Historikoko zerga-betebehar formalak arautzen dituen araudia, fakturazio-betebeharrei buruzko araudia eta Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergaren araudia aldatzen baitira. **7 or.**
- Ogasun eta Finantzen foru diputatuaren 429/2019 FORU AGINDUA, otsailaren 28koa, zeinaren bidez aldatzen baita Ogasun eta Finantzen foru diputatuaren urriaren 5eko 1740/2017 Foru Agindua (haren bidez, bi eredu hauek onetsi dira: 036 eredua, enpresaburuek, profesionalek eta atxikitzailleek zentsuko alta-, baja- eta aldaketa-aitorpenetarako aurkeztu beharrekoa; eta 037 eredua, enpresaburuek eta profesionalek (pertsona fisikoek) zentsuko aldaketa-aitorpenerako aurkeztu beharrekoa. **13 or.**
- Ogasun eta Finantzen foru diputatuaren 431/2019 FORU AGINDUA, otsailaren 28koa. Honen bidez, Ondarearen gaineko Zergaren 2018ko zergaldiko autolikidaziorako 714 eredua onesten da, bai eta eredu horren aurkezpen telematikoa egiteko prozedura ere. **14 or.**
- Ogasun eta Finantzen foru diputatuaren 430/2019 FORU AGINDUA, otsailaren 28koa. Honen bidez, Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergaren 2018ko zergaldiko autolikidaziorako 100 eredua onesten da, bai eta eredu horren aurkezpen telematikoa egiteko prozedura ere. **28 or.**

**2019/03/15**

- **OGASUN ETA FINANTZA SAILA** - Ogasun eta Finantzen foru diputatuaren 488/2019 FORU AGINDUA, martxoaren 6koa. Honen bidez, aldatu egiten da 847/2015 Foru Agindua, apirilaren 20koa, berotegi-efektuko gas fluordunen eragiketen urteko laburpen-aitorpenerako 586 eredua eta eredu horren aurkezpen telematikorako prozedura onesten dituen. **7 or.**

**G.A.O. (Gipuzkoako Aldizkari Ofiziala)**

**2019/03/12**

- **EKONOMIA SUSTAPENeko, LANDA INGURUNEko ETA LURRALDE OREKAKO DEPARTAMENTUA.** - 0231/LI/2019 Foru Agindua, martxoaren 11koa, 2019ko denboraldian Gipuzkoako Lurralde Historikoan ibai arrantzaren aprobetxamenduari buruzko araudia garatzen duena. 1513 xedapena – 11 or.

**2019/03/14**

- **OGASUN ETA FINANTZA DEPARTAMENTUA.** - 1/2019 Foru Dekretu-Araua, martxoaren 12koa, inbertsio kolektiboko erakundeen akzio edo partaidetzen zenbait birsailkapenen neutraltasun fiskala ezartzen duena. 1631 xedapena - 2 or.

**E.B.A.O. (Europar Batasunaren Aldizkari Ofiziala): [Europar Batasunaren Aldizkari Ofiziala](#)**

Kepa Bilbao Zubiaur

Tfno.: 94 425 25 15 Fax: 94 423.22.95

e-mail: [serviciosjuridicos@mutualia.es](mailto:serviciosjuridicos@mutualia.es)

.....

MUTUALIA, MUTUA COLABORADORA CON LA SEGURIDAD SOCIAL N.º 2  
HENAO, 26 - 48009 BILBAO